

# E U Z K E L - - A T A L A

## MUNGIA

**ZILLAR-EZTEGUNAK.**  
**35 GARRIN URTEBURUA.**  
 Elorriaga'tar Luis eta Enderika'tar Maria Dolores senar emaztiak ospatu dabe bere zillar-etzegu eguna, Ori dalata batu ziran emen bitzen yayotteri maitian, sendi oso ta alde bietako neba arreba, aida ta adiskide kutunak.

25 urte aidian irauneko osasune gaitik, artuko onasunek eta seme alaba elerrakaitik Goiko Jaunari eskerrak egin dautsez, urteburu egunian jauna bat danak batera entzunik. Gero bezkari gozo ta ugari batek pozago egin eban ezu maikideen alaitasuna.

Udal-Epaille. Ainbat urte dira, Luis jauna, gizon argi ta adetsua, Udal-Epaille izan zan ta ori dakinik dñio ta nik edustun dot, bere Epaille-aldian, erriko epategiria eldu ziran auzi guztiak bertan konpondu zeituzela ta baketu aurreraspiderik emon barik; obeto esateko, eusi bi bakarrak yoa e-ziran Gernikara. Eta Gernikako Epailleak erabagi zeitun Luis jauna emen aurretik esan eta iragarriko epaiti. Gizon bakegillia onuratsu-onuratsua da erriko.

Enderika sendia. Mungia'ko zaldun sendia, on-ona ta aberatsa ta guztiz adetsua. Antxine-antxinekoa da; papera amabigarren gixaldian aitaituten e-i-dabe sendi au.

Orain ba, beste zaldun sendirik ez dogu ezantzen ain zarririk; beñifik-bein, gixonbidez zuzen abizena dakarrenek ez. Zeuze-gaitik abegiz artzen doguz ta pozuten gara Enderika'tarrak Mungia'ko ikustean. Elorriaga-Enderika, senar emaztiok, urte ta diamante-etzeguak osasunez ikusiko aldazubez. Aiantxe.

## MATXIN.

### OTZANDIYO

**ARRESE TA BEITIA'REN OMENEZ**  
 Donosti'ko "Euskaltzaleak" eta uri onetako Udalak izentatu dabe dagonilla'ren 28garrenenerako Olerki yai eder bat gure Arrese ta Beitia Pilipa jaun andiaren omenez. Egun au ordo gertetan bada gure euskera maitiarentzat oso onuratsua izango dala zetan esan be eztago; euzgaitik yai onen gerkun lanak etitoko biar-biarreko da batzorde bat izentatua. Batzorde onen lenengo zeregiñia (neure eretzian) izan biar dau EUZKADI izen onuratsua epiduo uoap epiduo uoap erriarrak gandik asi ta euskaltzale guztien artian, batez be, Batzokietan; ba yakiña da epata dantzari, olerkari, txistulari, aurraskulari, pelotari, umien arriketa, eleizkizun eta abar ordainduteko diru askotxo biarko dala.

Neure errikide maitiak! Dan-danok gitxi edo askozak bakotzak aldaen eran arripetu gaitazan ainbat lasterren olerkariaren Ezkabi izan zanaren ogeta bost urrena abait ondzen ospatu daigun.

**YUAN-ETORRI**  
 Mariñe demek diralata zenbait ezin ala beste errikoseme ta kanpotar izan dira. Asko yua dira yayok igarota euren tokietara baña ondño ainbat gelditu dira. **MARISE DEUNAK**  
 Ederto ospatu dira Eleizkizunak guztiz ederrak bana plazan naste-borrastia ugari. Gaurko egunagaz amaituten dira aurtengouk.

Agur, Santa Mariña,  
 Baña ez betiko,  
 Beste urtebeti n  
 enaz etorri.

Limonada akabaturik  
 Otzandiyoko yente guztia  
 Dago tristeturik  
 Ixil-ixilik, epel-epelik.  
**BEKOLETA.**

### BERGARA

Ele berri ta pozgarri bat degu Bergara'ko erri onetan. Bizkaiko eta Gipuzkoa'ko erririk geienetan izango ez duten eie edo izparra, noski. Aspalditxo onetan ikusten genduan, gauzarik gurgarriñetako bat izanik gure Ama Euskera, bazartuta ta ostipekotua agertzen dala gure erriarren etxe ta landoletan. Biotzoko samintastunik audienarekin, oraindik egun asko ez dirala, entzun genituzen, erri onetako gizon kaskar baten espanietatik izan itun da negargarri auek: "Euskera, sukalde bazterretik kanpora ezertorako ez dala dala, ta... biar edo etzi inortxo ez dala mintzatuko ta... (iaua zori txarra!) geonek ere oso laister jarlungo ez degun itxuntza traskil da baldarra daia" (Utiñan! Ago ixilikan. Uke orrotarri bat lepotik ziniilik daramakela eorren burua ibaira jaurtikau baue, euskaldun txar, ziti tal orrek, ire amari urkamendia, ta guri betiko zori txarra opa dizkiguen, orrek! Ez dituk, ordea, jez!, ez dituk beteko beñiere ire itz da naimen galgarri auek! Emen gizeok zoli eta ernai, biotz barreneko berotasunez beterik, ire eta ire antzekoen zipada ta mizto zikin da gaiztoak mifilik eta negarrik ez ditzaioen eragin gure ama zarrari. Alper, alperrikan zabilzate, izanik bera Goiko-Jaunarena, etziok beñiere bere eskutik utziko, izatez garbia ta jatorriz Urtzirena dalako.

Baña jarraituaz argiraturatu dezagun idaztitxo onen asieran aitzen eman degun ele pozgarri au. Bizkaiko eta Gipuzkoa'ko erririk geienetan izan ez duten zori dantsu au.

Aste onetan igaro dan astelenian, il onen 14 gen. egunian, "Azi-Ona" Perillio jaun irakasle zalarik, asiera eman zitragoz neska-mutil taide batek euskerazkorako ikasgaleen ikaskizunei. Antxifakoa da zifize, beste mintzo guztien artian berdingabea, gure Ama Euskera, orregatik berari ezin geintzeko, zor diogun begirune maitekor da aberkoia agertu ta erakutsi gabe bizi, ta orrela, onetarako, biderik egoki eta zuzenena deritzog, bera ziur-ziur ezagutuaz toki aldeguztien Euskeraz mintzate.

—Bejondiezuela, nere adiskide ta gai onetan lagun zeraten neska-mutil euskeltzaleak! Ez da makala, ez da nolanaikoa zneri eta neri datorrigun zorian ugaria; ama gaixo dago; pikortu, indartu, sendatu ta poztu dezagun, eta berak ordafiez, saritu, onetxi, gorde ta donokiratu gaitu.

Txalotu ditzagun bada, eskeñi deiogun, zorian agurririk beroena euskal ikasgai onurakor onek antolatut ditzuten euskaldun zintzo ta jaun agurgarri auek, agintzen diegula geronen aldetik, arretaz, zate-

leiasun biziz, jarraituko degula orok jainkoikozko ikaskitzun auetan.

**OAR BI**  
 Lenbizikua. Deun JJakoba jaiain. Domeka Deunaren seme leialak duten txadon politian, emango da jaupa bat, euskaldun aberkoi eta jakintsua, ta erri onetako seme zintzo Eleizalde'tar Koldobika (G. B.) zanaren gogorren alde.

Zer esanik ez dago ainbeste ezagutu ta maite izan genduenk, orok bat egin da, aren alde otoi egitera, bilduko geranik. Aurtun jauparia euskaldun jator bat izango degu.

**BIGARRENA.**—Aurtun, aspaldiko urtetan ez bezela, Deun Ifaki jai ospatzeko asmo ederra du Bergara'ko erriak. Ekin deiogun bada la'ba jai oni dagokion goraitasuna irixten. Eusko Batzokian iriñik daude errenkada edo "listak" egun orretan egingo degun otzuntzarako.

LAUDATZ.

## ONATI

**AMAR URTE ETA ESKOLARIK EZ**  
 Ikastetxietako neska-mutikotzuentzat eldu da udako oporralditua. Ez dabilz asarre gure nutillok. Izan be, eguneroko-eguneroko, goiz eta arratsalde, bi edo uru orduan, norberak gura danbena egitari itxi ta trompu edo pelotia patrikaran gorde ta katonelko kako iguingarixari begira... ¡no hay derecho! gaitiko gaitiak esaten danben legez.

Goiz-goizetik etorten yako gizonari bere gudariyak lotu biarra. Yolas egin gura, eta eskolara juan biar; oñu egin gura, eta ixilik egon biar; askatasun egarriz itonen eta alde guztitak loturak, gizonaren zorixarra!

Bazan emen barre-eragile bat esan oi ebana gizonak zorieko izateko biar ebala, beti amar urte eta eskolarik ez. Egi aundiya auxe, baña beste biderik ez ba gago zorientasunerako, ez gaitu onetxek asko postuko zu eta ni, irakurle, zergaitik guretzat ez da berriz elduko amar urteko aldori orixe.

Zorieko zorian-egarriya sortuten yako gizonari biotzian biotzarekin batera eta emen gabilz danok itxumustuan egarri ori aseteko ur apur baten bila. Uste dot ez dagueñ lekuan gabilzeia eske.

Geu "aldrebes" gababiltz be, itxi deiogun bakian gaur zorientasun amar urte eta eskolarik ez daukien neskatilla-mutikoiñi, jolas dagiyen.

## ALONÁ.

**ASTEKO BARRIEK LABUR**  
 Kristiñau ikasbideen sariketa: Iragarritu egoan le zederto egin zan erri onetan goxean amarretako mezan txauburu jaunak egin eban itzaldia. Jaupa ostein azterketak (esamiñek).

Arratsaldean agurtza ondoren bananatu

ziran sariek ugari ederto egon ziran umiak, batez be Ipiña'ko batzuk.

Elezpe guztie bete zan lauretako erriko auzune guztietako lagunak. Baita plaza'tik be ta kanpotik etorri zezenak asko ziran. Ikusi genduzan Errotatxe, Arriola, Oleaga'n sendiak be.

Egin ziran-itzaldi bakarrizta olerki ta abar txalotuko izan ziran.

Aurreko landan egin zan zentza joko ta amaituteko ezpatadantzari txikiak dantzaz egin eben.

Bilbo'ko Aurrezki Kutxa Udaide'ran oneskunde. Astelenean egin zan leku barruen bezeñioa. Onetsi eban parrokoi jaunak. Bilbo'tik etorrita emen ziran Kareaga alkate jauna Urigen bigarren alkatea Bigoya ta abar. Baita erriatiko ordelariak be etorri ziran da Aretzta'ko txauburu edo arzipresteja jauna be emen zan. Ondoren emengo erriko etxean batu ziran da umiari eskola umiari emon eutsien azkari edo meriendea da Urraburu'n plazan txistulari txikiak yota sofua epata dantzari txikiak dantzatu ziran.

**NASKALDIJA**  
 Gogo-ñarkunak egitera Gazteiz'era yoañ dira Itxaurbe da Uriarte yaupariak.

Andaizui'tik etorri da Afibarro abade-ikaslea.

Bilbao'tik Oleaga'tar Nazari'n sendija. Labastida'ta Gil Alberdi irakasle edo maixua.

Bolibie'tik Bengoa Pantzekatar Aba. Gazteiz'tik Larrinoa andereñoa. **SANTIAGO IPIÑEN**  
 Deun Jakoboa eguna da Ana Deuna urtero jez andikiro ospatuteko ueste dabe Ipiñabururarrak Eleizkizunak itzaldi meza abestu ta abar andikiro egiteko gogoa.

Yayak eñaxatik at? Araba emengo ezpatadantzakaz berba eginda dagoz ba baita beste yokoñ batzuk. Pelota partidue da ifoz entzun epadozue irakurlea. Aker-burrukea? bai... Aker burrukea. Ipizar'ko Nikola'sena Jose auzune aretekeonagaz. Posturak be egin dagoz batzuen artean. Artoena cebekuta eie dago, baña akarrena ueste dot ezatala egongo.

**EZKON DEYAK**  
 Igandean Andra Mari elexan joan zirenak: Sierra-Sesumaga Dolores, Zuleiber'koa Madariaga Jesus Durangokoagaz. Murgotio Ipiñeko mutilla Basauri Deun Mikel'ko neskatilleagaz. Zorionak. **ZUBIEN ERREMATA**  
 Illa onen 22' eie dago Zubieren erremata da orregaitik batek batzuk izan dira emen. **ERIOZTA**  
 Altuzteko auzumean il da Angoitia Santa (G. B.) andra-ona. Auzune guztien oso maite izan dabena. Otoi bat aren arimean alde irakurlea.

**AUZUNE ESKOLA UMIAK**  
 Diputazioan emon dautse oni belutxu dirua osterba da egiteko da egunian egin eben 42 neska-mutil da bost irakasleek ikerturik Markiña, Deba ta Lekeitio. Ederto ibili eie ziran.

## ORREIK AUTOMOBIL EDO BELBILOK!

Igandean emen etxera doyala Gumuzio Serapia Andrea Bengoetxea Dunixe belbilek goratu ebazan da Andrea Bilbo'eri etxera eroan eben da neskatolari be zertzeto egin yakon iru gizon etozan bertan da bidetik urten da beko Alkibe ondoraño yoañ zan belbi'e. Da gizonok bidetan doyazala urten eben eskerrak, ostantzean danak ilten ziran (Agirie zan belbille) 3.972 zenbakia da ondño bertan egon bear dau. Zaurituok obeto doyaz. Oñek gauzok sarri ikusiko dira neurriek artzen ezpadira.

**NESKATO ZURRA**  
 Emengo Oleaga jaun an alabatxo bat amar urteko aurkezutza Bilbo'ko Epalza argureñ sarietara da 8'garren geratuda Bilbo'ko ikastoi guztietako onenak aukeratan dira oñek beka ta sarietara. Zorionak guraso da neskatotoxori. Berau txikitatik euskera egiten dauana da.

Arto yorrik bigarrenak egiten bai dabil lugiñak. Arutza Mikel'en euskerazko idazkia. Luginza ta abere-zaintza. Berbatxo bi irakurri egizue. Eguneko EUZKADI'no oso ategin izango yatzue ta. **BASERRITAR BAT.**

## ARRASATE (MONDRAGON)

**DEUN INAKI EGUNEKO JAIK**  
 "Euskaltzaleak" bazkuna 1927'ko iraila'ren 4'an Arrasate'ko Udaletxe'an jayoa da, ta il onen 31'an Deun Inaki egunian bere jayoterra ikertera etortzeko asmuñ cu, ori dalata erri outako euskaltzaleak jai andi eta eder batzuek gertazten gogor diardue ñanian, ta beste jai batzuen artian gutxi gora bera onetxek, egongo dira. Goizian JJaun artzia, gero meza nagusia ibildeun, txontiz (sermoi) ta guztia. "Euskaltzalen" batzara Udaletxian itzaldia Lizard'tar Xabier jaunak. Atzaldian pelota lekuan Euskal-jai andi bat, pelota jokaketa, Soka tiraketa, eta Arriñeña, txapelketa, Aretxabaleta, Aramaña eta emengo Ezpatadantzariak eta gero Eñesbatzakin eusko erromeri andi bat illutzarte.

**ITZ-ZORROTZ'KO JAIK**  
 Eusko Mendigoizaliak juan dan igandian gertau eben jai guztiz ederra eta aberkoia izan zan aurrerauko egunetan eguraldi txarrak egin aren oso andia bazuan eta eguraldiak ere bertan egunian asko lagundu euskun.

Goizian Arrasate'ko Dultzarero ospatsak Aretxabaleta eta Eskoriatza'n kale biribilketa eder batzuek josuten eurrak oituten daben letz.

Aitz-zorrotz'en 19'etan emon eban jaupa Arru'e'tar Joseba Abak eta amaiaren otoi egin zan aita-gure bat itzako abertzale eta mendigoizaliak gatik, 11'tan emengo jaupari zintzo Inaz'tar Pantzeska jaunak emon eban bigarren jaupa Aretxabaleta'.

## AINGERUA DONOKIRA

Arizabaleta'tar B. gure lagun zintzuarri bere alabatxo jayo berriak ludi kaskar au utzi eta Donokira ega egin dotse. Atsekabian laguntzen dotzagu eta eulki itxaropena an goitik lagunduko dauna.

## UDALA MENDI.

## MARARI

**YUAN-ETORRI**  
 —San Millan'dik etorri zan bere ameta sendiyaren onduan egun batzuk igaroten Eranden Alta, lekaide augustindarra. —Erandiyo'tik etorri zan Barrenetxea'tar Polentzi, emengo Gereta'ko semia. —Otzandiyo'ko yayietara yuañ ziran Untzalu'tar Errosale ta Bitore neskatuk.

—Bilbo'tik etorri zan Uriarte'tar Pantzeske anderea. **GEIXORIK**  
 Naikue txarto dago Barrenetxea'tar Nemese andrea.

Osasuna opa deutzagu. **TXAUNBURU-LAGUN BARRIYA**  
 Egunian etorri zan Barrenetxea'tar Polentzi yauna, emengo "koajutore" barriya. Len, Amalloa deritxo. Markiña'ko auzonuan egon da; ta Larrabetsu'ko semia da. Ono etorriya. **ARZULUAK IKUSTEN**  
 Emen dagoz egun batzuetan, Gazteiz'ko "Seminario de Aguirre" deritxon yaupari-ikasitokolo buru dan Barandiaran abade yauna ta Arantziadi'tar Telesor yauna, Bartzelona'ko ikastola-nagusiko irakasariya. Yaun oñek, emengo koba, iabarpe ta enparau atx-basterrak ikusi ta arakatuten diardue jantxiñeko gauzaren batzuk aurkituteko asmuñ.

Lengo urtian beintzat, Naharro'tar Perpetua jaunak azur, ari ta abar, ainbat gauza polit aurkitu zituan. Zaletasun begiñua da. **LEKAIME YANTZIA**  
 Igaro zan igandian, artu eban moja yantzia, Manresa'n Miren'en Lagundi'ko mojak daukien lekaretxian, Santurde'tar Miren emengo neskatilliak. **ZORIONAK**  
**GARI-EBAGITEN**  
 Aste-onetan asi dira gari ebagiten. Oñi iru aste dala ibili zan aize-biyor indantsuak etzunda batian-bestian gari asko agiri da. Tamala da; ba luzarun etzunda dagon gariyari buru matxarra edo bapetxako egiten.

Igaro zan urteko beste betekaka sabaiyetan aurtun ezta izango; gauzia urri dago-ta. **AZTERKETAK**  
 Egunian egin ebezan azterketak eskolako neskatotutik. Ederto egon ziralata, Udañak gozuekak sariztu zituban. Ederto egiten. **SUE**  
 Barikuan, Izurtza'ko "Desmote"-ko etxe barriyan sue izan zan. Albuñ etxiari ikututa egun kortia dana erre zan, e'at

etxiari be tellatu egala apur bat erkon. Ezkerrek jentia bizko ibili ta bestelan etxe guztia be laster zan. Ezbiarrik etzan izan. **EGURALDI TXARRAREN ZEGAITIYA**  
 Lengo arratsalde baten, iru edo lau gure baso-ibiketa bat egizue egun gifoñzala, erreka abten ondoko zuzen baten kerizpe ederrian atsedenduz ketan gongozan. Onetan, bape ueste artzain-agure bat urreratu yakun, et be atsedenduz geure albotxuan y zan.

Aguretxuaz barriketa aldi luzian gozan eta gauza askotaz bera egizun, eta azkenez, atara gendun udan batian-bestian izan diran ekatxo abar. Eguraldiyatzaz ainbat modutan ba egin gendun; bakotzak bere en azalduten genduala. Alako baten, an-aguria zutundu zan, eta eguraldiyatzaz andien bat esan bear ebala-badai begira yari gaiyakozan. Ordun-ben (seriyo) asi zan eguraldiyaren tija esaten.

—Ara, Santa Barbara egunian Añeko señorie koba barren sartute bada, urrango uñe ona ta ugariey da; baña egun orretan kobatik izaten bada, urrango udan seukeloko ta triskantza izaten dira. Ta igarurteko Santa Barbara egunian or lrra alidian ibili e-i-zan su ta gar Añeko señorie; ta orregaitik dira aum ekatx, turmoi ta enparau ezbiar gure. Aguriak esanikuari ez gemtsone terik emon; baña bere buruko uñeyen itzaltasunez epantetara berez et barria atzeratuta sifistuz bagendu le ditu ginian.

## MAÑARI

## AZKONTI

Irugarri zan bezala juan zan igandian Bidezkundia "Urrategira", Sortez Garbia bertara jasoaz; gomurria izango da egun ori gure errian, tan biluriki oso osorik, bat egifikitok; Amari eskintako egun ederra rotzera, bertan egin ziran itz aldi jaupa nagusian jaupari agurgarri An Beninek, arratsaldian jaupari agur Aspeitia'tar Balendin'ek, azkenik an zan agur ezitsu bat abestuz gure Maria maitiari eta orrela jatzai zan tizta andia berutz "Altzibar'ko" Letetara, an ibildeun eder bat antolaxodon nagusira, bertan agurtu onet aldi sutsu bat egin zigun gure buru agurgarriak eskerrak emanaz guztiañi bederatzi urrenian azaldur jaiera sutsu onagatik, guztion Amañgun Andre Maria Sortez Garbiereko, aurrera ere jarrai dezala orrela, rakin itxaropena jartzen degula, Ama gorde gure erria. **ESKERRAK**  
 Gure txauburu Azpiazu'tar Jokin garriari damaztuz gure eskabidea or artua izan zentziuko, zere erriari dñaitasun maitekorragatik, baita ba gañfuntzeko jai eder oiek antolatzen diranei.

## NASKALDIA

Gure lagun abertzale Alberdi'tar seba Inaki gudaria, etorria degu batzuetako, baita emen agurtu degu garako abertzale on Muxika'tar Deñtar. **"ABERRI"**  
 Asko postutzen gera Elgoibar'ko trokiak danan ideakin. Deun Laure bailleran eusko jai eder bat antolaten lenden izan dedilla luzatu gabe, iruko abertzaleak aspalditik egarri dazuta.

## ANTZERKI JAIK

Biar igandian arratsaldeko zazpi dietan izango da gure lagun abertzale Alberdi'tar Joseba Miren al Eusko Batzokiak antolatuta, berari emai zaijon ongi nai laguntza azalduz, aspalditxoko gaixo onetan indartu de.

Jakin abertzale eta gañfuntzeko guztiek biartuak gauzala laguntasun ematia lagu txero bati, beragatik eskatu da aldanik gein jai ortara biltzia. **EGI-ALDE**

## AZPEITI'TIK

**EUSKEL JAI ANTOLOTZALIAI**  
 Eup, jaunak. Ariz ori beltza zuberu Egia da anñian Azpeiti euskaldun e zan, bañan aspaldin urrezko ametsu etzirik zegon, batzuk bategatik, beste begategatik, eta ez gutxiago politika garikatuagatik euskera maitia, ia zerturpeñ bizi bizirik ia obratua baña erriko seme jator bat edo besteri eskertautspan ia itzalian zegon txingar saize ta aize geroz emanaz su txingar gar biziñan jarrait erriar guztien biotz pitzu ta kiskal bearran dituzte ta jartzen ari diran euskal jai ortan argi siko da Azpeiti politikarrik gabe. Lotko ñazioren egunetako erri euskaldia euskaldun uts utsa. Politikeri erri bat bizi ezin al leike?

Euskal egun orten antolatzaleak bere erriarrak izan arren politiki kontu sakabandurk izan izan diran baña ongi ezagutu dute erri baten zoriona tasunian dagola ta erri gatzeluan eseri gogor ari dira ardi sakabandurk erri gtelu barrenian sartu naian egin alian tarako esieitu dituzte iru izlari beren ekañtasuna goi mailian dago ta Euzkergatik zer nai egiteko prest daudenak Ekal jai antolatzale jaunak jai orti, oge zappian ezin egin aleike egun orretan leike ba Bilbo aldetik ere euskeraren me zintzo langille batzuk erri onetan itia, pozikan entzungo lukeenak izorien itzaldi mamitsua. Ogeita bostem prestaturik zeuden izlariak ogeita zarten aldi gutxi izango dute. Auzo erkoai esateko ere ari luzea dago ta ezin zunik ez dago. Agur ba jaunak ta Ekal-erri zoragarriak ordaindu zaitzuek bere gora naian duruzten mena. **URREKO ZOROA**

## ZEZTONA'KO GEZALAGA'TIK

**AZPEITI'KO "ARAUNTZ-MENDI"-RI**  
 Irakurri nuñ zuk azkenengo idazkeneri egiten zidazun dela ta erantzuten emen natorkizun.

Jakihen gañean egongo zera Gezala onetan urbiltzen diran ndiak danak badira ere geyenak erdelundun dirala euskeraz erri berriak idatzia alperrikoa dala iruditzen zait neuri, ta gañere garirik ez da izaten jun-etorriak ken ezkeru.

Orregatik bada oraindño nere txu berriak azaldu ez baldin banaiz ez oldtu oporrian nabillela ta gutxiago izpaz ingi maite onezat akuta nagola ez; bizi zing aurduna edo okasiyona izaten deguzuzian idatziko det nere idazkoretza errotutako onekin, naiz emen, nai beste ekerazko izparringietan.

Agur bada adiskide, ta eskerrak nize

## ERRI-ERETXIA

**Zer egin bear dau oraingoz eusko abertzale alderdiak?**

### ITAUNKETA

- 1go. Eusko abertzaleak sunak era-barritu bearrik daukonik, eta beraz egitarau barria egiteko ageriko deadar bat egin bearrean dagonik ete deritxazu?
- 2go. Deadar orregaz batera, abertzale-indarra beste era batera borobildu ditekela iduriten yatzu?
- 3go. Au jortzeko, Batzar andi bat egiteari zer deritxazu?
- 4go. Batzar andi ori gertuteko aukeratu al leike bein beineko Batzorde bat Araba, Gipuzkoa, Nafarroa ta Bizkaitik ainbeste bana ordezkogaz?
- 5go. Batzorde orreri emongo al yako eskubidea bein beinekoz abertzale alderdiaren arau-gai barri bat antolatzeko, Batzarraren erabagipean izten dala?
- 6go. Zeintzuk bost abertzale on aukeratzen dozuz Batzorde orretarako?

Egiteguna 1930'garrengo ..... ren ..... gartena

Izenpea .....

Izen-abizenak .....

Erria ..... Kalea ..... garren oñia

Orri au ebagi badi ta baldiu idazki-azalpean EUZKADI'ra "Encuesta" izenez. Apartado 234. Bilbo'ra.

## PLEBISCITO

**¿Qué debe hacer en las actuales circunstancias el Nacionalismo Vasco?**

**Extremos de la Encuesta abierta para conocer la opinión del Nacionalismo**

1. ¿Cree usted necesario que el Nacionalismo Vasco proceda a una revisión de valores y, en su caso, a un público pronunciamiento que condense sus aspiraciones y programa?
2. ¿Juzga usted conveniente que, paralelamente con ese pronunciamiento, se lleve a efecto una nueva organización de las fuerzas nacionalistas?
3. ¿Estima usted necesario la celebración de una Asamblea de amplio significado como medio de que puedan tener realidad los apartados anteriores?
4. ¿Considera usted oportuna la designación de un Comité provisional integrado por un número igual de representantes de Araba, Gipuzkoa, Nafarroa y Bizcaya, al que se le confiera la labor preparatoria y de organización de la Asamblea?
5. ¿Cree usted acertado otorgar a ese Comité provisional facultades de Ponencia a los efectos de que formule un proyecto en relación con los dos primeros extremos o apartados, sometiéndolo a deliberación de la Asamblea?
6. ¿Qué cinco personas de destacado nacionalismo designa usted para formar parte del Comité aludido? (Para los efectos de la designación del Comité téngase en cuenta lo prevenido en la base sexta.)

Fecha ... de ... de 1930

Firma: .....

Nombre y dos apellidos .....

Pueblo ..... Calle ..... Núm. .... Piso .....

Recórtese este boletín y envíese bajo sobre a EUZKADI. "Encuesta". Apartado n.º 234. Correo, 17, 1.º BILBAO.